

## 3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

### Agenteak

Gure maskoten kafetegi soziala aurrera eramateko hainbat agente edo bazkide funtsezkoak dira. Lehenik eta behin, animalien babeslekuak eta elkarteak daude, abandonatutako txakur eta katuak proiektura bideratzen dituztenak. Proiektuaren sustatzaileak eta kudeaketa-taldea ere ezinbestekoak dira, zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendu orokorra bermatzen dutelako. Horrez gain, langile profesionalak behar dira, hala nola maskoten zaintzaileak, albaitariak eta ostalaritzako langileak. Beste agente garrantzitsu batzuk adineko pertsonen zentroak eta gizarte-zerbitzuak dira, proiektuaren helburu sozialarekin lotura zuzena dutelako. Bezeroak ere funtsezko agenteak dira, zerbitzuaren erabilera eta jasagarritasun ekonomikoa ahalbidetzen baitute. Azkenik, tokiko administrazioa eta hornitzaileak kontuan hartu behar dira, baimenak, araudia eta beharrezko baliabideak bermatzen dituztelako.

### Rola

Animalien babeslekuak eta elkarteak dira agente garrantzitsuenak, abandonatutako maskoten ongizatea bermatzen dutelako eta adopzio-prozesuak kudeatzen dituztelako. Bigarren mailan, proiektuaren sustatzaileak eta kudeaketa-taldea kokatzen dira; haiek dira proiektuaren diseinua, antolaketa eta bideragarritasuna ziurtatzen dutenak. Hirugarrenik, langile profesionalak eguneroko funtzionamendua bermatzen dute, kalitatea, segurtasuna eta arreta pertsonalizatua eskainiz bai maskotei bai bezeroei. Laugarrenik, adineko pertsonen zentroek eta gizarte-zerbitzuek bakardade egoeran dauden pertonei proiektua hurbiltzen diete eta haren dimentsio soziala indartzen dute. Bezeroek, hurrengo mailan, proiektuari zentzua eta iraunkortasun ekonomikoa ematen diote. Azkenik, tokiko administrazioak eta hornitzaileek zeharkako baina beharrezko rola betetzen dute, araudia betetzea eta baliabideen hornidura egokia bermatuz.

